

Josu Feijoo euskal alpinistaren bisita Biteri Ikastetxe Nagusian

2009/05/25

Mondragon Unibertsitateko Ikastetxe Nagusiak antolatzen dituen ekimen kulturalen barnean, maiatzaren 27an Fosu Feijoo alpinistak hitzaldia emango du.

Josu Feijoo euskal mendizalea espaziora joango den munduko lehen diabetikoa izango da. 2009ko irailean Lurrari bira emango dion bidaiari diabetisarekin zerikusia duten hiru esperimentu zientifiko jasango ditu eta insulina mota berri bat probatuko du. "Euskonauta-k", hala deitzen dio bere buruari EFE-ri eskainitako elkarrizketa batean, aurretik ere aurkeztu izan du bere burua teknika berriak frogatzeko, esate baterako, odolean glukosaren baloreak denbora errealean transmititzeko sendagileei munduko edozein tokitatik.

Mendizale modura, Feijoo hainbat gailurretara heldu da: Everest (Asia), Elbrus (Europa), Mckinley (Ipar Amerika), Vinson Massif (Antartida) eta Kilimanjaro (Afrika) eta bi tontor gelditzen zaizkio kontinenteetako zazpi mendirik garaienak menderatzeko.

Baina orain, bere ametsa espaziora bidaiatzea da. Irailean, ViginGalactic-en VSS Enterprise untzian espazioratuko da Californiako (EEBB) Mojave destertuan dagoen basetik eta 135.000 metrotako altuera hartuko du.

